


## Egiarreta – Uharte arakil



### KOKAPENA

Aralar Euskal Herriaren erdialdeko mendilerro bat da. Ipar mendebaldean Gipuzkoa du (zehazki, Goierri eta Tolosaldea eskualdeak), eta hego-mendebaldean Nafarroa Garaia (Larraun eta Sakana eskualdeak). 30 kilometro luze da ekialde-mendebalde norabidean, eta 12 bat kilometro zabal ipar-hego norabidean. Gipuzkoako aldean dagoen mendilerroaren zatia, mendikate guztiaren herena, 1994 urteaz geroztik natura parke da, eta horko interpretazioguneak Lizarrusti mendatearen gainean du egoitza. Aldiz, Nafarroa Garaia aldeko mendiak mendikate guztiaren bi heren dira, eta Aritz haranera begira dauden mendi ikusgarriak Aralarko Malloak deritze.



### DESKRIBAPENA

Ibilbideak bide atsegin eta erosoak hartuko ditu motorrak pixkanaka berotzeko. Bide hauek, harrien artean eta bide-zidorrez osatutak izango dira. Pista zati batzuk ere zeharkatuko ditugu.

Aralar mendilerroari buelta ematen dion Gr 20a aprobetxatuko dugu honen etapa zati bat egiteko. Ibilbide luze hau, artzainen bideei esker eginda dago.

Guztira, 394 metro desnibeleko eta hamabi kilometroko irteera izango dugu. Beraz, exigentzia maila ertaineko irteera izango da. Normalean egiten dena baino pixka bat luzeagoa.

## IBILBIDEA

**KM 0** Egiarreta herriaren aurretik dagoen Santiago de Itxasperriko ermitatik aterako gara. Mendebalderantz herriaren norabidea hartuko dugu.

**KM 2** Hiriberri herrira doan bidegurutze bat alde batera utzi eta mendebalderantz jarraituko dugu.

**KM 6** Arakil ibaiaren ondotik jarraituko dugu, herrietara jeisten diren hainbat bidegurutze ikusiko ditugu, alde batera utzi eta mendebaldeko norabidean jarraituko dugu.

**KM 10** Iraneta herriaren goiko partetik pasako gara. Kasu honetan hurrengo bidegurutzean hegoaldeko norabidea hartuko dugu, Uharte Arakil herrira doana. Bidegurutze honetan Aiztondoko hormak eta Aralarko San Migelen santutegia ikusteko aukera izango dugu.

**KM 12** Uharte arakilerira iritsiko gara. Erromatar zubi batetik gurutzatu eta herriaren erdialdera zuzenduko gara. Bertan Gasteizera bueltan ekarriko gaituen autosa itxoiten izango dugu.

